

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 509/2019 Erabakia, uztailaren 30ekoa. Onestea María Natividad López de Munain Alzola izendatzea Ingurumen eta Hirigintza zuzendari

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 eta 40.7 artikuluetan eta uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 9 eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio goi karguak eta konfiantzazko gainerako langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere sailtako diputatuen proposamenak hala eskatuta.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. María Natividad López de Munain Alzola Ingurumen eta Hirigintza zuzendari izendatzea.

Bigarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu 2019ko uztailaren 30etik aurrera.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSE ANTONIO GALERA CARRILLO